

## **Euskaltelek eta MASORANGEk 200 M€ inbertituko dituzte datozen hiru urteetan, Euskadiren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzeko**

- Euskaltelen/MASORANGEren inbertsio historikoa 3.5700 M€-koa baino gehiagokoa da.
- MASORANGE taldearen Euskadiko marka da Euskaltel, eta lurraldeko etxeen eta negozioen aukera gogokoena, zuntzeko eta mugikorrekoko banda zabalaren estaldura handiena baitu operadore guztien artean.
- Haren zuntz-sarea Euskadiko 251 udalerrietako 1,25 M higiezin-unitate baino gehiagotara iristen da; lurralde horretan, biztanleriaren ia % 100ek du eskura banda zabala. Kable-sarea zuntzera aldatzeko prozesua amaitu du, arrakastaz. Banda zabaleko bezeroen % 80 baino gehiago zuntz optikoko bezero dira.
- Euskal biztanleriaren % 90ek baino gehiagok Euskaltelen 5G teknologia mugikorra erabil dezake.
- Euskaltel/MASORANGE da Euskadiko operadore bakarra gai dena enpresei 5G Stand Alone zerbitzua eskaintzeko, hots, 5G zerbitzurik aurreratuen, kalitate eta segurtasunik handiena bermatzen duena 5G sare pribatuen bidez, adibidez.
- MASORANGE taldeko markek ia 2 M zerbitzu total dituzte Euskadin.
- Euskaltelek eta MASORANGEk ia 3.000 enplegu sortzen dituzte Euskadin, zuzenekoak eta zeharkakoak, eta 115 salmenta-puntu propio inguru ditu.
- Lurraldeko administrazio publiko eta enpresa askok Talde berriaren esku uzten dituzte beren telekomunikazio-zerbitzuak.

**Bilbo, 2024ko uztailaren 4a.-** [MASORANGE](#)ko kontseilari delegatua, **Meinrad Spenger**, eta konpainiako Erregulazioa, Gai Publikoak eta Jasangarritasuna saileko zuzendari nagusia, **Luz Usamentiaga**, Euskaltelen instalazioetan izan dira gaur. Han, harrera egin diete **Euskaltelen** presidenteari, **Xabier Iturbek**, eta zuzendariak, **Jon Ander de las Fuentesek**. Elkarrizketan, berretsi dute **MASORANGEk Euskadirekin duen konpromisoa** eta lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta teknologikoa bultzatzeko asmoa.

Konpromiso hori gauzatu da **Orangek, MASMOVILEk eta Euskaltelek (Euskadin duten erreferentziatzeko marka)** beren ibilbidean zehar egin duten **3.700 M€-tik gorako inbertsio metatuan**.

Etxeen eta enpresen **digitalizazioa** eta **lurraldean inbertitzea** dira gaur egun ere Euskaltelen eta MASORANGEren ardatz nagusiak, **Euskadi munduko lurralde aurreratuenen mailara**

**ekartzeko.** Helburu horrekin, **Euskaltelek/MASORANGEk 200 M€-tik gora inbertituko ditu Euskadin datozen 3 urteetan**, lurraldearen garapen ekonomikoa eta teknologikoa sustatzen jarraitzeko.

Gaur egun, Euskaltelek eta MASORANGEk **ia 3.000 pertsonari** ematen die enplegua lurraldean, eta **115** bat salmenta-puntu propio ditu.

### **MASORANGE taldearen 2 M zerbitzu inguru Euskadin**

Euskaltelek eta MASORANGEk Euskadin dituzten markak dira euskal bezeroen lehen aukera, eta **2 M linea inguru** dituzte lurraldean. Gainera, banda zabaleko bezeroen % 80 baino gehiago zuntz optikoko bezero dira.



### **Bezeroen asebetetasunak gora egin du**

2024ko lehen hiruhilekoan, **aurreko bost urteetan baino gogobetetze-indize hobekak lortu zituen Euskaltelek bezero partikularren eta enpresen artean**, ia % 15 murriztu zuen gorabeheren kopurua, eta telekomunikazio-zerbitzuen erabiltzaileek gehiago gomendatu zuten Euskaltel.

### **MASORANGE/Euskaltel: zerbitzu-bikaintasuna bermatzen duen banda zabalaren estaldura handiena**

**Euskaltel** erreferentziatzko operadorea da Euskadin, etxeen eta negozioen aukera gogokoena eta **lurraldean banda zabaleko estaldura handiena duena**.

Gaur egun, Euskadiko **251 udalerrietako 1,25 milioi etxe eta negoziotara baino gehiagotara iristen da Euskaltel/MASORANGE FTTH zuntz optiko bidez**; beraz, **ia biztanleriaren % 100i ematen dio estaldura**.

Gainera, kable-sarea zuntzera aldatzeko prozesua arrakastaz amaitu du.

Sare hori, XGS-PON estandarrean oinarritua, etorkizunerako prestatua dago, eta aukera ematen du aldi berean aritzeko telelanean, teleprestakuntzan, bideo-deiak egiten, streamingean, gamingean... Sistema horrek sarbide ultraazkar horiek gaitzen ditu: gaur egungo teknologiak baino lau aldiz deskarga-ahalmen handiagoa eta zortzi aldiz igoera-ahalmen handiagoa eskaintzen du. Euskaltelek, halaber, **zuntz ikusezineko FTTR zerbitzua** eta merkatuko eta haririk gabeko sare indartsuena merkaturatu ditu.

Bestalde, **euskal biztanleriaren % 92k baino gehiagok du Euskaltelen eta MASORANGERen 5G estaldura**, eta hura erabiltzeko moduan dago. Ia euskal biztanleriaren % 100ek du 4G estaldura.

### **Euskal enpresei digitalizatzen laguntzen die Euskaltelek**

Enpresa-merkatuari eta administrazio publikoei dagokienez, **Euskaltelek** katalogo zabala eskaintzen die euskal enpresei, haietako bakoitzaren beharretara egokitua, bai prozesuen automatizazioan, bai beste alderdi batzuetan. Besteak beste, eskaintzen ditu **AA, Big Data, cloud soluzioak eta zibersegurtasuna** (*Scudo* produktua ETEentzat pentsatuta dago espezifikoki).

Horretaz gainera, Euskaltel/MASORANGE da **Euskadiko operadore bakarra** gai dena enpresei **5G Stand Alone** zerbitzua eskaintzeko, hots, 5G zerbitzurik aurreratuena, kalitate eta segurtasunik handiena bermatzen duena 5G sare pribatuen bidez, adibidez.

Bestalde, **Euskaltel**engan konfiantza duten konpainien informazioa kalitate eta segurtasun handienarekin erabiliko, kudeatuko eta biltegitratuko dela bermatzen duen **datu-zentro (datacenter)** aurreratu eta gertukoa du Taldeak.

MASORANGE, zeinaren parte baita Euskaltel, **erreferente** bat da dagoeneko **Euskadiko enpresa-sektorearentzat, eta lurraldean dauden administrazio publiko eta enpresa askok** Talde berriaren esku uzten dituzte beren telekomunikazio-zerbitzuak. Haien artean, batzuk oso garrantzitsuak: **Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, hiru hiriburuetako udalak, Eusko Legebiltzarra, Mutualia, Euskadiko Farmazialarien Goi Kontseilua, Cie Automotive, Danobat Group, Ingeteam, Artech, Kutxabank, Retabet, Nortegas, Laboral Kutxa, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Kirolbet eta AVIA Esergui**.

### **MASORANGE/Euskaltel lurraldearekin konprometituta**

MASORANGE/Euskaltelek konpromiso sendoa du Euskadirekin **berrikuntzari, kulturari eta gizartearekiko inpaktu positiboari** dagokienez.

Testuinguru horretan, **presentzia zabala du erakundeetan**, eta lankidetzan dihardu administrazio publikoekin eta euskal ekonomiako sektore estrategikoekin. Hala, liderra da zenbait azpiegitura digitalen garapenean: **metroa, euskal trenbide-sarea eta korridoreen sarea** (BasqueCcam, Mubil), **datuak kudeatzeko azpiegituraren garapena, hiri handietako**

hiri-altzarietan **small cellen** bidez hedatzeko planak, Bilbon eta Donostian martxan dauden proiektuetako luminariak, etab.

Gainera, zenbait **proiektu estrategiko** garrantzitsutan parte hartzen du, hala nola **zerbitzu partekatuen zentroa, Derioko (Bizkaia) I+G+B zentroa**; AARI, zibersegurtasunari, konektagarritasunari, datuen analisiari eta Gauzen Interneti (IoT) lotutako proiektuekin dihardu horretan. Bestalde, **5G teknologia garatzeko** ahalegina egiten du zenbait proiekturen bidez — **BasqueCCAM, 5G saredua**, portu-azpiegitura aurreratuak eta lehiakorragoak teknologia horri esker, parke teknologikoak, trafikoaren emisioak neurtzea, Smart Citya, **Atlantic Data infrastructure** eta abar—, Eusko Jaurlaritzarekin eta Teknei erakundearekin batera, enpresen eta administrazio publikoen eraldaketa digitalerako. Eta **Euskadin azken urteetan egindako 5G pilotuetan** ere badihardu.

Nabarmentzekoa da orobat **Euskaltel-Euskadi txirrindularitza-taldearen babesletza**, Euskadi Fundazioari finantza-aldeetik lagunduta, erreferentziatzeko beste bazkide batzuekin batera: Orbea, Laboral Kutxa eta Etxe Ondo, besteak beste.



Beste ekimen batzuen artean, nabarmentzeko modukoak dira **“GarageLAB”** programa — egokitze zailtasunak dituzten ikasleen tasa murrizteko eta hezkuntza-sistema tradizionala aprobetxatzeko, ikaskuntza-metodologia motibatzaile eta berritzaile baten bidez— eta **#juntotalautismo** proiektua, zeinaren helburua baita autismoa duten pertsonen eta haien senideen eguneroko bizitza hobetzea, haien komunikazioa eta integrazioa erraztuz.

Gainera, konpromiso hori are zabalagoa da, **mundu digitaleko enplegarritasunarekin** lotutako beste jarduerak batzuetara ere heltzen baita; besteak beste, **profil tekniko altuko 8 pertsona** kontratatu ditu unibertsitate-katedren eta beken bidez, eta **berrikuntzari**, kulturaren eta gizartearen zerbitzurako **ekintzailezari eta teknologiarari**, *startup*en sustapenari, kulturaren eta kirolaren munduko babesei, behatokiei eta mezenasgoari lotutako jarduerak ere egiten ditu.




## MASORANGE da Espainiako operadore lider berria

**MASORANGEk Euskadiren alde egin duen apustuak** are garrantzi handiagoa hartu du, estatuko telekomunikazio-merkatuko lider berria baita estalduran, bezeroen asebetetzean eta talentuan.

Konpainia berriak aktibo bikainak ditu Espainiako merkatuan hazten jarraitzeko, zerbitzurik onenak eskaintzen baititu, eta horrek bermatuko du haren bezeroak izango direla Espainian gusturen daudenak.

Zehazki, **MASORANGE** estatuko merkatuko lehen operadorea bilakatu da bezero-kopuruari dagokionez, **37 M linea baino gehiago** baititu mugikorren eta banda zabalaren artean (30 M mugikor-zerbitzu baino gehiago, eta 7,3 M banda zabalean) eta **2,3 M telebista-erabiltzaile** baino gehiago. Gainera, **FTTH estaldura handieneko operadorea da Espainian: 30 M** etxe komertzializagarri baino gehiago zuntz optikoarekin, 4G (% 98) eta 5G (% 85etik gora) estaldura mugikor onenatariko bat **Espainiako 2.700 udalerritan baino gehiagotan**, bezeroen gogobetetze-maila handiena (NPS) eta merkatuko talentu metatu handiena —**8.500 profesionalak** osatutako lantalde bakarra eta beste **zeharkako 50.000 lanpostu baino gehiago**.—



Bestalde, finantzei erreparatzen badiegu, **MASORANGE** Espainiako **20 enpresa handienatariko bat izatera igaro da diru-sarreraren bolumenari** dagokionez, 7.400 M€-tik gora fakturatu baititu; gainera, 2.600 M€ baino gehiagoko emaitza operatiboa (EBITDA) izan du; eta enpresa berri konbinatuaren balorazioa 18.600 M€-tik gorakoa izan da.

### Prentsarako kontaktua:

Fernando Castro  
[fernando.castro@masorange.es](mailto:fernando.castro@masorange.es)  
 Telefonoa: (+34) 656.160.378